



SAN BENITO IKASTOLA



Euskadi enparantza z/g
20210 Lazkao



943 88 08 00



lazkao@ikastola.eus



www.sanbenitoikastola.eus

ELKARBIZITZARAKO BARNE-ARAUTEGIA

Lazkaon, 2020ko urriaren 27an Artezkaritza Kontseiluak onartutako azken bertsioa

(COVID19-aren aurrean ezarritako protokolo eta prebentzio neurriak betetzeko arautegia eranskin moduan txertatuta)

Aurkibidea

0. SARRERA:	3
1. PRINTZIPIO OROKORRAK:	3
1.1. Bizikidetza plana.....	3
1.2. Eskubideen berehalako babesa	3
1.3. Eskubideen zerrenda laburtua	3
1.4. Betebeharrak betetzeko bermea:	4
1.5. Ikasleen betebeharren zerrenda laburtua	4
2. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA	4
2.1. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea	4
2.2. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea	4
2.3. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea.....	4
2.4. Biltzeko eskubidea.....	5
2.5. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak	5
2.6. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea.....	6
2.7. Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea	6
3. IKASLEEN BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEA	6
3.1. Printzipio orokorrak	6
3.2. Zuzendu beharreko jokabideak.....	7
3.3. Jokabide desagokiak:	7
3.4. Bizikidetzaren kontrako jokabideak.....	8
3.5. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.....	9
3.6. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko prozedura	11
4. FUNTZIONAMENDUKO ARAUDIA: OHITURAK ETA ARAUAK	12
5. IKASTOLAREN INSTALAZIOEN ERABILERA ZUZENA ETA ZAINKETA	15
5.1. Eragindako kalteak eta jokabide desagokiak	15
5.2. Eragindako kalteak eta bizikidetzaren aurkako jokabideak	15
5.3. Eragindako kalteak eta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.....	15
6. PREBENTZIO ETA JARDUKETA-PROTOKOLOA COVID-19AREN AURREAN	16
6.1. Prebentziorako araudia:	16
6.2. Arau haustek:	17



0. SARRERA:

Ikastolako Barne Araudia abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan dago oinarritua; dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak biltzen ditu.

1. PRINTZIPIO OROKORRAK:

San Benito Ikastolaren ustez, bizikidetzaren bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte.

1.1. Bizikidetzaren plana

San Benito Ikastolak bizikidetzaren plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat eginez. Bizikidetzaren helburu nagusia bizikidetzaren gerta daitezkeen gatazkak saihestea da, eta gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikustea, beti ere abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan zehaztutako jardueren eta neurrien bitartez, hain aipatzen diren neurri alternatiboak kontuan izanez, eta, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabiliz.

Edozein mailatan bizikidetzaren arazo larriak susmatuz gero, Ikuskaritzarekin eta Berritzeguneko teknikariek kontsultatu egingo da eta mailako ikasleen birbanaketa har daitezkeen neurrietako bat izan daiteke.

1.2. Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 19. artikulura bitartean jasotzen diren eskubideak izango dituzte. Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea ondoren aipatzen diren eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, zuzendari edo ikasketaburuarengana joateko agindu/eraman.

1.3. Eskubideen zerrenda laburtua

6. artikulua- Hezkuntza integrala izateko eskubidea
7. artikulua.- Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko
8. artikulua.- Ikasle adingabeek ikastetxearen babesa jasotzeko duten eskubidea
9. artikulua.- Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea
10. artikulua.- Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea
11. artikulua.- Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea
12. artikulua.- Kontzientzia-askatasunerako eskubidea
13. artikulua.- Ikastetxeetan biltzeko, elkartzeko eta adierazteko eskubidea
14. artikulua.- Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.
15. artikulua.- Ikasleen elkartzeko eskubidea
16. artikulua.- Parte hartzeko eskubidea
17. artikulua.- Informazioa jasotzeko eskubidea
18. artikulua.- Aukera-berdintasunerako eskubidea
19. artikulua.- Gizarte-babeserako eskubidea

1.4. Betebeharrak betetzeko bermea:

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte ikasleek. Irakasleren batek ikusten badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, zuzendari edo ikasketaburuarengana joatea aginduko dio.

1.5. Ikasleen betebeharren zerrenda laburtua

- 21. artikulua.- Ikasteko betebeharra
- 22. artikulua.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra
- 23. artikulua.- Bertaratzeko betebeharra
- 24. artikulua.- Bizikidetzaz errazteko betebeharra
- 25. artikulua.- Pertsonen kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra
- 26. artikulua.- Kontzientzia askatasunerako betebeharra
- 27. artikulua.- Instalazioak zaintzeko betebeharra

2. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

2.1. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea.

San Benito Ikastolako irakasle guztiak abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

2.2. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

Tutoreek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratatu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketaburua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.

Irakasleek berdin arteko tratatu txarrak saihestu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratatu txarren arrastorik antzeman ez gero, zuzendaritza taldea eta orientatzailea jakinaren gainean jarriko du berehala. Honek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Sailburuordearen instrukzioak jarraituz, 2011ko irailean argitu zen ikastetxeetan berdin arteko tratatu txarrak gertatzen direnean jarduteko gidaren bertsio berria jarraituko du eta bertan aipatzen diren urratsak emango ditu.

Ikasketaburuak zenbait irakasle –begien bistaz ikasle guztiak kontrolatzeko behar adina– izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten. Irakasleek jolas-orduan beren jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute.

Zaintzaren zehaztapenak ikasturte hasierako bileretan eta tutoretza orduetan adieraziko zaizkie gurasoei eta ikasleei.

2.3. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea

Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, San Benito Ikastolako aginte- organoek, tutoreek eta irakasle guztiak babesteko dute ikasleen nahiz hezkuntza- komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak proposatuta Ikastolaren Artezkaritza Kontseiluak erabaki dituen arauak aparteko “ohiturak eta arauak” atalean daude jasota.

2.4. Biltzeko eskubidea

San Benito Ikastolako ikasleek biltzeko eskubidea izango dute bileraren helburua hezkuntzarekin erlazionatuta dagoenean, eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko du Zuzendaritzak.

Zuzendaritzari 48 ordu lehenago adierazi beharko zaio arrazoiak idatziz aipatuz.

Ikastolako Zuzendaritzak proposatuta Artezkaritza Kontseiluak ondoko erabakiak hartu ditu eskubidea gauzatu ahal izateko:

- a) Taldeak gelan bil daitezke ikasketei buruzko gaiak lantzeko, eskolarik galdu gabe, alde zurretik zuzendaritzak tutoreari jakinaraziz. Hala badagokio, tutorea bileran izango da.
- b) Ikasleen ordezkariak horretarako egokitutako gela batean bildu ahal izango dute eta Zuzendaritzarekin batera bilera horien funtzionamendu arautegia adostuko dute.

2.5. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak

Asistentzia ikasle guztientzat derrigorrezkoa bada ere, Batxilergoko ikasleen kasuan asistentzia eza, lanuztea edo greba, ez da hutsegite bezala hartuko biltzeko eskubidearen ondorioz bada.

Zuzendaritzak proposatuta Artezkaritza Kontseiluak ondoko puntuak erabaki ditu:

1. Lanuztearen deia Euskal Herriko gizarte erakunde batek egin behar du eta Euskal Herriko komunikabideetan azaldu behar da. Hezkuntza, kultura edo gizartearekin zerikusia duten deialdiak izango dira.
2. Erabakia mailako batzarrak hartuko du.
3. Ebaluaketa bakoitzeko, denera, 13 saio edo 2 egunetako lan etena egin ahal izango dute.
4. Batxilergoko ikasleen %5i, gutxienez, iruditzen bazaie lanuztearen arrazoiak bileran aztertu eta proposatu behar direla, ikasgeletako ordezkariekin hitz egingo dute eta zuzendaritzari, idatziz arrazoiak azalduz eta behar den dokumentazioaz lagunduta bilera egiteko baimena eskatuko diote: Deialdia nork egiten duen, eguna, ordua, programatutako ekintzak, komunikabidearen kopia eta bilera noiz egin nahi dute. Eskaera hau deialdiak proposatzen duen eguna baina 48 ordu lehenago egin beharko diote zuzendaritzari. Salbuespenak behar den bezala arrazoitu beharko dira.

Bilera egiteko prozedura ondorengoa izango da:

- Zuzendaritzak eman beharko dio onarpena proposamenari eta hau tutoreari jakinarazi.
- Bilera atsedenaldietan egingo da eta irakaslea aurrean izango da.
- Bozketa banakakoa eta isilpekoa izango da, eta irakaslea aurrean izango da.
- Boto bilketa geletako ordezkarien eta irakasleen artean egingo da, eta emaitzak, irakasleek eta ordezkariak sinatuta, aktan jasoko dira eta akta hori zuzendariari emango zaio.
- Emaitzak erabakigarriak izateko, prozedurak eta bozketak akatsik gabekoak izan behar dute, eta ikasleen mailako gehiengoa islatu behar dute.

Galtzen diren klaseen ondorioz irakasleek ez dute gaiaren programazioa aldatu beharrik. Lanuzte egunetan azterketak aurreikusita badaude ez dira egunez aldatuko, aurretik finkatutako egunean egingo dira eta ikastolako antolaketak ahalbidetzen duenean lehen orduan egingo dira ikasleek deialdian jasotako ekintzetan parte hartu ahal izateko. Egun hauetan azterketak egiten ez dituzten ikasleek deialdi hau galduko dute.

Era berean, aurretik zehaztuta dauden ekintzen (irteerak, hitzaldiak...) datak errespetatu egingo dira, aldatzeko aukerarik ez dagoenean. Irteera data ezin bada aldatu, ikasleek irteera horren kostua estaliko dute. Hitzaldiaren data ezin bada aldatu, ez etortzea justifikatu gabeko hutsegitez hartuko da, honek ebaluazioan izan dezakeen eraginaz.

2.6. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea

Ikastola barruan hezkuntza gairekin erlazionatutako gaiak soilik jarri ahal izango dira, eta beti ere pasilloetako paneletan. Jarri aurretik tutoreei erakutsiko zaie (azken hitza zuzendaritzako kideek izango dute).

Edozein kasutan, erakundeenganako, hezkuntza-komunitatearenganako eta bertako kide guztienganako errespetua kontuan hartu beharko da.

Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke, eta tutorearen baimena beharko da.

Aipatutako arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, edozein irakaslek eskatuta. Irakasleek objetibotasunez jokatuko dute.

2.7. Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea

Ikasleek ikasturte hasierako klaseetan ezagutuko dituzte gai bakoitzeko ebaluatzeko irizpideak, helburuak eta edukiak.

Ikasturte bitarteko ebaluazio saioen ondotik nahiz ikasturte amaieran ikasleei, gurasoei edo legezko ordezkariari informazioa emango zaie.

Ikasleek edo beren gurasoek edo legezko ordezkariak edozein frogaren erreklamazioa egin dezakete frogaren nota ezagutu eta 48 orduko epean.

Erreklamazioa egiteko prozedura ondokoa da:

1. Lehenik, ikasgai horretako irakaslearen aurrean egingo da.
2. Ikaslea ados geratzen ez bada, jarraitzeko urratsak hauek dira:
 - a) **Ikasturte bitarteko ebaluazioa bada** tutorearen aurrean egingo da erreklamazioa eta honek dagokion mintegian aurkeztuko du. Mintegiak erabakiko du zer egin.
 - b) **Ebaluazioa finala bada**, erreklamazioa idatziz egingo da eta ikasketa-buruari aurkeztuko zaio. Ikasketa-buruak mintegian aurkeztuko du eta mintegiak idatzizko txosten batean programazioetan zehaztutako mailak eta ebaluazio irizpideak bete diren ala ez argudiatuz erabakiko du.

Erreklamazioari oniritzia ematen bazaio nota berria aktetan eta gainontzeko dokumentuetan jarriko da.

Ikaslea ados ez badago, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara jotzeko aukera izango du.

Ikasleak berak egindako frogen kopia bat eskuratzeko eskubidea izango du. Ikaslea adin txikikoa bada, gurasoek edo legezko ordezkariak idatzizko eskaera egin behar dute eta ondorioz jaso ahal izango dute.

3. IKASLEEN BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEA

3.1. Printzipio orokorrak

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

Betebeharrak ez direla ikusten duen irakaslea esku hartzera behartuta dago. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

3.2. Zuzendu beharreko jokabideak

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, horrela zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat hartzeko modua eginez.

3.3. Jokabide desegokiak:

Jokabide desegokitza hartzen dira abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan 30. artikuluekin lotura duten guztiak:

JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua)

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko hutsegiteak.
- c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumeneren eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
- g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzara-arauei edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- k) Ikaskideengauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
- l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzara horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA (34. artikulua)

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barnerratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.

3.4. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

Bizikidetzaren kontrako jokabidetzat hartzen dira abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan 31. artikuluekin lotura duten guztiak:

BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

- a) Ikastetxeetako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak; betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.
- c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- d) Noten buletinetan edo gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaillei ez ematea edo erantzunak aldatzea.
- e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea; betiere, indarkeriarik erabili gabe.
- i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta, betiere, bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.
- j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe

BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (35. artikulua)

- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
- b) Kargu-hartze idatzia.
- c) Kargu-hartzea, ikasleen gurasoak edo lege-ordezkariek bertan direla.
- d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.
- e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; betiere, hiru hilabetez gehienez ere. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka izandako jokabidearekin.
- f) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoekin edo lege-ordezkariekin elkarriketa bat egiten den arte. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.
- g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
- h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-orduetan, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.
- i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte; betiere, bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

erabiltzea.

- k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.
- m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean; betiere, aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
- n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan jasota ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

2. 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

3.5. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak

Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabidetzat hartzen dira abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan 30. artikuluekin lotura duten guztiak:

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (32. artikulua)

- a) Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezako egintza edo obediencia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
- c) Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako, ezarritako definizioa aintzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA (36. artikulua)

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko;

horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.

- d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
- f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
- g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka. bai taldean.
- i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan; betiere, hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldeztatik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.
- k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan, beste edonoren izena erabilia aritzea.
- l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.
- n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
- o) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.

betiere, lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada.

3. Ikasleren bat, aurretiaz, zuzendua izan bada ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak izateagatik, ikastetxeko zuzendariak aukera izango du, 28. artikuluko 1.n) idatz-zatian adierazitako kasuan izan ezik, hezkuntzako lurralde-ordezkariori eskatzeko ikasle horren matrikula beste ikastetxe batera aldatua izan dadin. Ikaslea adin nagusikoa balitz edo derrigorrezkoak ez diren ikasketak ikasiko balitu, urruneko hezkuntzako zentroetarako edo gaueko ikasketetako zentroetara lekualda daiteke haren espedientearekin. Adineztu nagusiko ikasleak edo derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten dituen ikasleak ez balu onartuko espedientearen lekualdaketa hori, baliogabetu egingo da ikasle horrek ikastetxean duen matrikula, eta baja emango zaio ikastetxe horretan.

4. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkion jokabidearen ondorioz berdinen arteko tratu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunaraziko balitu, edota, jokabide horiek ikastetxeko irakasleren bati egindako erasoak badira, zuzenean proposa daiteke espedientearen lekualdaketa, aintzat hartu gabe ikasle hori aurretik zuzendua izan den ala ez. Jardunbide bera baliatzeko aukera izango da, baldin eta eraso fisiko bereziki larriak egin bazaizkio hezkuntza-komunitateko beste kideren bati.

3.6. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua aplikatuko da, beti ere gatazka ebazteko dekretu horretako III atalean aurreikusten diren bide alternatiboak erabiltzen saiatuz.

- Arau haustea **puntuala edota jokabide desegokitzat** jotzen denean, irakasleak **tutoreari** jakinaraziko dio eta honek familia jakitun egingo du, dagokion erabakia hartuko du.
- **Bizikidetzaren aurkakoa edo bizikidetzari kalte larria** egiten dion jokabidea ematen denean, dagokion **etapako ikasketaburua, elkarbizitzako kidea eta tutorea** bilduko dira: gertakariari buruzko informazioa bildu, aztertu eta erabakia ondorioztatuko dute.

4. FUNTZIONAMENDUKO ARAUDIA: OHITURAK ETA ARAUAK

Abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak dioenarekin bat etorritz, San Benito Ikastolak ondoko arauak ezarri ditu bere funtzionamenduan:

4.1. Ikasleen lehen eskubidea heziketa jasotzea da eta lehenengo betebeharra ikastea. Beraz molestutzen badugu, besteen eskubidea oztopatzen dugu.

4.2. Momentuko hainbat jarrera edo egoera puntual gertatzen denean, irakasleak/tutoreak, e-mail baten bidez familia jakitun egingo du. **Jokabide desegokiak** gertatzen direnetan, dagokion irakasleak, tutorea eta familia jakinaren gainean jarriko ditu 1. eranskina erabiliz. Gurasoek eranskina sinatu beharko dute eta ondoren hau tutoreak gordeko du. Jokabide desegokia hiru hilabeteko batean hiru aldiz errepikatuz gero bizikidetzaren aurkako jokabide bihurtzen da eta azken hau, ikasturte berean, hiru aldiz errepikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten diona bihurtzen da.

4.3. Puntueltasuna.

- Guztioi dagokigun ardura izanik, klase sarreretan eta irteeretan puntueltasuna ezinbestekoa da funtzionamendua egokia izan dadin.
- Puntueltasunik ez dagoenean, irakasleak ALEXIAN jasoko du, tutoreak jakin dezan.
- Justifikatu gabeko puntueltasun eza hiru hileko batean hiru aldiz gertatuz gero **jokabide desegokia** da eta, eguneko atsedean orduan egin beharreko hausnarketaz gain, dagokion tutoreak zein lan egin behar duen adieraziko dio.
- Aipatutako neurria ez betetzeak jokabidea bizikidetzaren aurkako bihurtuko du eta horrelakoei dagozkien prozedura eta neurriak aplikatuko dira.

4.4. Bertaratzea:

- **Klaseetara asistentzia nahitaezkoa da.** Klase orduak, ikasleentzat direnez, egunero-egunero etenik gabe jarraitzea ezinbestekoa da. Klaseetara huts egitea **kasu guztietan justifikatu behar da.**
- Ikasleek etortzerik ez dutenean, **ahal den guztietan**, familiak **tutoreari jakinaraziko** dio. Aldez aurretik jakinaraztea **ezinezkoa denean**, egun berean, **telefonoz edo emailaz** abisua pasatuko diote tutoreari.
- Justifikatu gabeko kasuetan tutoreak gurasoei deituko die, ahal bada egunean bertan, eta arrazoa zein izan den jakiteaz gain, horrelako kasuetan jarraitu beharreko prozedura zein den ere adieraziko zaie.
- Irakasleak huts egitearen justifikazioa ekarrita ere, zenbait kasutan, ikasleak ekarri duen justifikazioa egiaztatzeko tutoreak gurasoei deitu ahal izango die.
- **Justifikatu gabeko asistentzia eza jokabide desegokia** da eta egin beharreko hausnarketaz gain, egokiena ikusten den garaian edota atsedean orduetan, denera 2 ordu bete arte, gela batean geldituko da Ikastolan. Galdutako klaseengatik zein lan egin behar duen tutoreak adieraziko dio.
- Ebaluazio bakoitzean irakasgai bateko ordu kopuruko %13a, edo denera 8 ordu justifikatu gabe izanez gero, irakasgai horren ebaluaketa egiteko aukera galduko du ikasleak eta azterketa finaleran egin beharko du. Denera zortzi ordu justifikatu gabe baditu ikasleak, hainbat gaietan ebaluaketa egiteko aukera galduko du (irakasgaiak ebaluatu gabe geratuko da finalak egin arte).

4.5. Ikasleen jarrerak geletan eta pasilloetan:

- Ikasketa-giro egokia lortzeko, gela barruan ikasleak arretaz jarraitu behar ditu irakaslearen argibideak eta esanak, irakaslearen jarduna eta beste ikasleena oztopatu gabe.
- Ikasleen betebeharrak nagusia ikastea denez, ikasleek etxeko lanak eginda edo egiten

- saiatuta ekarri behar dituzte (orokortzen bada jokabide desegokia izango da).
- Irakaslea iritsi aurretik ikasleek gela barruan egon behar dute, klaseko materiala mahai gainean prestatuta. Gainontzean, klase tartetean ikasleek beren gelan egon behar dute: Ikasleak ezingo dira baimenik gabe ere gelatik atera, edo ate inguruan eta leihoetan ibili.
 - Klasera joateko gela batetik bestera joan behar denean, beharrezkoa ikusten den kasuetan, dagokion irakaslea etorri arte gelan zain egongo dira ikasleak, eta berarekin joango dira joan behar duten lekura.
 - Irakasleekin nahiz beste ikasleekin hitz egiteko erak errespetuzkoa izan behar du, irainik eta modu desegokirik erabili gabe: guri gustatzen ez zaizkigunak ez ditugu geuk ere erabiliko.
 - Pasilloetan era egokian ibili behar da, korrikarik edo oihurik gabe; pasiluak ez dira etzanda edo eserita egoteko tokiak.
 - Hamaitetako jateko lekua patioa da, eta hura erabili beharko da, ez gelak edo pasiluak.
 - Ikasleak komunera joateko irakasleari baimena eskatuko dio. Klase tartea ez dira komunera joateko erabiliko. Horrela gertatuko balitz baimena galduko luke (jokabide desegokia izan daiteke errepikatzen bada).
 - Arau hauetako bakoitza ez betetzea jokabide desegokia da printzipioz eta atsedean orduak erabiliko dira egindako jokabideaz hausnarketa egiteko eta kasuari dagokion neurri zuzentzailea egiteko.
 - Dekretuaren arabera araua ez betetzearen larritasuna jokabide desegokia baino gehiago balitz, dekretuak dioena aplikatuko litzateke.

4.6. IKTen erabilera.

- Bai familien bai ikasleen aldetik ere deiren baten edo eman beharreko abisuren baten beharra sortuko balitz, arrazoiak esan ondoren, Ikastolako idazkaritzak edo dagokion irakasleak bideratuko lukete. Beraz, Ikastola barruan ikasleek ez dute printzipioz telefono mugikorren edota antzeko aparailuen ezertarako beharrik.
- Ikastola barruan ikasleek **ezin dituzte** sakelako telefonoak, audioak edo antzerako aparailuak **piztuta eraman**, eta **are gutxiago erabili**. Tresna hauen beharra sortuko balitz irakasleak esango lieke alde aurretik; beraz, garbi geratu dadila irakasleak momentu bakoitzean erabakiko duela beharrezkoa den ala ez (eta beti irakasleak baimendu duen helburu eta erabilerarekin).
- Piztuta eramate soila jokabide desegokia izan daiteke. Erabiltzen ikusiz gero, telefonoa edo dena delako aparailua jasoko du irakasleak 24 ordu igaro arte (baldin eta familia jakitun dela jasotzen bada) edo gurasoak bila etorri arte. Familiak 1. eranskina bete eta sinatu behar du.
- Ikastolako eraikin barnean telefonoz hitz egitea edo deiak (abisuak, WhatsApp-ak...) jasotzea jokabide desegokia da, eta atsedean orduak erabiliko dira egindakoaz hausnarketa egiteko eta kasuari dagokion neurri zuzentzailea egiteko.
- **Ikastolako edozein eremutan ere, aparailu hauek, helburu akademikorako erabiltzen dituzten ordenagailuak barne, ezin dira erabili baimenik gabeko argazkia ateratzeko edo bideoa grabatzeko...**; jokabide hauek bizikidetzaren aurkakoak dira gutxienik, eta kasu horietan dekretuak dioena aplikatuko da. **Gogoratu behar dugu ikastola eremu pribatua dela eta ezin dela baimenik gabeko inolako grabaketarik egin aparailu hauekin eta are gutxiago sarean jarri.**
- Irteeren helburua pedagogikoa da, eta alde aurretik denontzako programaturik daudenez, ikasleek telefonoak, audioak edo antzerakoak autobusean eta beraien tarte libreetan soilik erabili ahal izango dituzte (erabilpenak beti egokia izan behar du eta irakaslearen baimena beharko da).
- Oro har, edozein tresnaren erabilera gauzatzeko irakaslearen baimena beharko da. Horrelako tresnaren bat ekartzen duenak bere ardurapean egingo du.
- Ikastolako Internet eta korreo elektronikoa erabili ahal izateko, ikasleek irakasleari eskatuko diote baimena; bere baimenik gabe ezin izango dute erabili.

- Aipatutako arauak ez betetzea, **egin den erabileraren arabera, jokabidearen desegokitasuna era batekoa nahiz bestekoa izango da**, eta aplikatuko den neurria dekretuak dioenaren arabera izango da.

4.7. Gelaren zainketa eta garbiketa.

4.7.1. Gelaren zaintza:

- Gela eta altzariak txukun eta egoera onean izatea guztion mesederako da, eta guztion ardura da. Ikasleek gela bera eta gelako altzari osoa ongi erabili eta zaindu behar dituzte. Horrela, paperak edo bestelako zaborrak botatzeko zakarrontziak egongo dira, eta haiek erabili behar dira, hauek sailkatuz. (ikastola barruan ezin denez jan, organikorako zabor-ontzirik ez da izango).
- Koadernoak eta liburuak mahaietako nahiz armairuetako apaletan utzi behar dira, eta ez lurrean.
- Mahai azalak txukun izan behar dira, bertan ezer idatzi gabe, kontrakoa jokabide desegokia izan daiteke; berdin hormak edo armairuak. Arbelari ere klaseko jardunean dagokion erabilera egingo zaio, ez besterik.
- Gela barruan jarri beharreko informazioa horretarako dagoen lekuan jarriko da, eta beti tutorearen baimenarekin.
- Arau hauetako bakoitza ez betetzea jokabide desegokia da printzipioz eta atsedean orduak erabiliko dira egindako jokabideaz hausnarketa egiteko eta kasuari dagokion neurri zuzentzailea egiteko.

4.7.2. Gelaren garbiketa:

- Egunero bi ikaslek gela garbituko dute, beharrezkoa baldin bada. Irakaslea izango da azkena irteten; arduradunak zein diren argitu eta garbiketa martxan jarri arte. Egunero azkeneko klasea bukatu ondoren aulki guztiak mahai gainean utziko dituzte ikasleek, bakoitzak berea eta beharrezkoa denean besteenak ere bai.
- Gela komunetan (zenbait bikoizketa gela...), saio bakoitza amaitutakoan aulkiak igoko dituzte ikasleek.
- Edozein irakaslek edozein ordutan garbitzeko eskaera egin dezake, beharrezko ikusten badu: 5 minutu emango dira mahaiak, apalak eta armairuak garbitu edota ordenatzeko eta birziklatzeko kaxak husteko.
- Ikasleek ikasgelako ohiko ordutegitik kanpo erabiltzen badituzte ikasgelak (ingelesko eskolak, partikularrak...), erregelamendu honetako arauak aplikatuko dira.

5. IKASTOLAREN INSTALAZIOEN ERABILERA ZUZENA ETA ZAINKETA.

Ikastolako instalazioak, baliabideak eta materialak, edo eskola elkarteko gainerako kideenak diren jabego eta baliabideak, guztion ardurapean daude (gelak, apalak, mahaiak, aulkiak, ateetako sarrailak, komunak, iturriak, liburuak, baliabide teknologikoak, e.a.).

Erabileraren poderioz konpondu beharreko hausturak (nahi gabe egindakoak) ikastolak bere gain hartuko ditu. Nahita edo erabilera desegokiaren ondorioz eragindako kalteek, aldiz, ondorengo trataera izango dute:

5.1. Eragindako kalteak eta jokabide desegokiak

Ikastolako instalazioei, ikastolako materialari edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen jabegoei narriadurak eragitea, utzikieriaz/zabarkeriagatik gertatzen direnean, jokabide desegokitzat hartuko da.

Neurri zuzentzailea:

- Kaltearen eragilea nor izan den dakigunean, bera (beraiek) izango dira zenbateko ekonomikoaren erantzule (familiak) edo erreparazio/konponketaren laguntzaile.
- Kaltearen eragileak ezagutzen ez ditugunean, zenbateko ekonomikoa edo konponketa Ikastola osoaren gainera erori gabe, gune horiekin lotura zuzena duten taldeak egingo dira arduradun, egoki ikusten den eran.

5.2. Eragindako kalteak eta bizikidetzaren aurkako jokabideak

Ikastolako instalazioei, ikastolako materialari, dokumentuei edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen jabegoei bidegabeko nahitako erabilera, bizikidetzari kalte larria eragiten dionean, aipatutako jokabidea bizikidetzaren aurkako jokabide modura hartuko da. Kasu hauetan instalazioen, altzarien edo jabegoen aurkako eraso nabarmenak izan beharko dute (pintadak; komunak hondatzea edo buxatzea; sarrailak/ateak/mahaiak/aulkiak haustea; liburutegiko, laborategiko, informatika gelako, teknologia gelako, kiroldegiko... materiala, edo bestelako jabegoak suntsitu, desagerrarazi edo lapurtzea).

Neurri zuzentzaileak

- Kaltearen eragilea nor izan den dakigunean, bera (beraiek) izango dira zenbateko ekonomikoaren erantzule (familiak) edo erreparazio/konponketaren laguntzaile.
- Kaltearen eragileak ezagutzen ez ditugunean, zenbateko ekonomikoa edo konponketa Ikastola osoaren gainera erori gabe, gune horiekin lotura zuzena duten taldeak egingo dira arduradun, egoki ikusten den eran.
- Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak ikasleak egitea. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka izandako jokabidearekin.
- Eskolaz kanpoko jardunetan edo jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea ebaluaketa batean galtzea.

5.3. Eragindako kalteak eta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak

Ikastolako instalazioetan, ondasunetan edo ikastetxeko langileei (irakasle, ez –dozente) edo ikasleei, bai bakarka, bai taldean, kalte oso larriak eragitea, bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa hartuko da (txikizioa, bandalismoa, jabego/materialen aurkako bortizkeria oso larria, e.a.).

Neurri zuzentzaileak:

- Kalte materialaren ordainketa ekonomikoa eta lan hezigarria eskola orduetatik kanpo (eragindako kalte materialak konpontzeko lanak).
- Arlo edo irakasgai batera edo ikastolara joateko eskubidea etetea (3-20 egun bitartean). Ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk egin baditu.
- Eskolaz kanpoko jardunetan edo jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea ikasturtea amaitu arte galtzea.
- Nahita eragindako kasu oso larri hauek delitu edo zigor arloko trataera izan dezakete (dekretuan 32.h-m,75. artikuluan adierazitakoaren arabera interpretatuko dena).

6. PREBENTZIO ETA JARDUKETA-PROTOKOLOA COVID-19aren AURREAN

COVID 19ak baldintzatutako momentua bizi dugu, bizimodua aldatu digu eta ikasturte berria ere baldintzatuko du. Horretarako, segurtasun- eta higiene-neurri egokiak ezarri behar izan ditugu eta, egoerak dirauen bitartean, ezinbestekoa izango da segurtasuna bermatzeko zenbait neurri errespetatzea.

6.1. Prebentziorako araudia:

6.1.1. Ikastolara etorri aurretik etxean bertan tenperatura hartu behar da, eta ikaslea ez da etorriko sukarra izan (>37°) edo COVID-19ekin bateragarriak diren sintomak dituenean. Ikastolara sartu aurretik, **gorputz-tenperatura** ikasleei hartuko zaie.

6.1.2. Derrigorrezko etapako ikasle bat ikastolara joatea derrigorrezkoa da osasun-egoera onean badago. Ikasle batek ez du ikastolara joan behar egoera hauetan:

- PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain dagoenean.
- Isolamenduan badago, PCR bidez diagnostikatutako koronabirus-infekzio bat duelako.
- Berrogeialdian badago, COVID kasu baieztatu baten kontaktu estua delako.
- Koronabirus bidezko infekzioarekin bateragarriak diren sintomak baditu.

6.1.3. Maskara erabiltzea:

- Egunero, ikasle bakoitzari musuko kirurgiko bat emango zaio gelan; bakoitzak bere oihalezko edo paperezko zorrottoa ekarri beharko du etxetik dakarren musukoa gordetzeko.
- Arau orokor gisa, ikasle guztiek nahitaez erabili beharko dute espazio guztietan eta une oro.
- Erabilpen egokiaren jarraibideak ezagutu eta aplikatzea ezinbestekoa da.
- Eskola-garraio kolektiboan derrigorrezkoa izango da 6 urtetik gorako ikasle guztientzat, baina, ahal izanez gero, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen da. Autobusen barruan ezin izango da maskara kentzea dakarren jarduerarik egin (jatea edo edatea).

6.1.4. Eraikinaren barruan:

- **Sarrera-irteerak** lerrokatuta eta txanda errespetatuz egingo dira, zaintza dagokion irakaslearen aginduak errespetatuz.
- Zentroko espazio komunetan (komunak, pasilloak...) pertsonak elkartzea saihestuko da eta eraikinaren barruko seinaleztapena errespetatuko da.
- **Komuna banan-banan erabiliko da eta beharrezkoa denean soilik**, baimena eskatuz.
- Eremu komunak partekatzea saihestuko da, eta itxaronaldian pertsonen arteko distantziari eutsiz.
- Ikasle bakoitzak erabilitako mahai eta aulkiak garbituko ditu.

6.1.5. Higiene neurriak:

- Eskola-materiala, partekatzea saihestuko da
- Eskuak maiz garbituko dira soluzio hidroalkoholikoekin. Behar bezala garbitzeko, komeni da azazkalak motz izatea eta eratzun eta eskumuturrekorik ez erabiltzea.
- Saihestu begiak, sudurra eta ahoa ukitzea.
- Eztul edo doministiku egitean, ondo estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta edo paperezko zapi batekin, arnas jariakinei eusteko; ondoren bota berehala zapi hori paperontzi edo edukiontzi espezifikoko batera.

6.2. Arau hausteak:

6.2.1. Jokabide desegokiak (nahita egin gabe egiten direnak):

- Ikastolako espazioetan maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea.
- Jarduera egikaritzeko finkatutako eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higieena ez betetzea.
- Doministiku egitea, nahi gabe finkatutako babes-mekanismorik erabili gabe.
- Behin eta berriz, instalazioko lurzorura edo beste azalera batzuetara txistua, mukiak edo antzekoak botatzea nahi gabe.
- Beste pertsona baten eskola-material pertsonala erabiltzea edo partekatzea.
- Beste pertsona baten arrisku bereziko banakako erabilerako materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) erabiltzea edo partekatzea nahi gabe.
- Komunak nahi gabe baimenik gabe erabiltzea.

6.2.2. Bizikidetzaren kontrako jokabideak:

- Ikastolako espazioetan irakasleek maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea, behin eta berriz.
- Jarduera egikaritzeko finkatutako eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higieena ez betetzea, behin eta berriz.
- Doministiku egitea, finkatutako babes-mekanismoak behin eta berriz erabili gabe.
- Beste pertsona baten eskola-material pertsonala erabiltzea hori egitea debekatu denean eta pertsona horrek baimendu ez duenean.
- Beste pertsona baten arrisku bereziko banakako erabilerako materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) nahita erabiltzea edo partekatzea.
- Irakasle edota ikastolako langileen agindu zuzenak ez betetzea, kutsatzeko arriskua eragin dezaketen egoeratan.
- Berariaz komunak baimenik gabe erabiltzea.
- COVID-19a duelako edo izan duelako haur bati edo beste pertsona bati iseka egitea edo hura mespretxatzea.
- Hiru arau-hauste arin metatzea.

6.2.3. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak:

- Ikastolako instalazioetan maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea, behin eta berriz eta berariaz.
- Beste pertsona bati berariaz txistua, mukiak edo antzekoak botatzea edo doministiku egitea.
- Beste pertsona baten arrisku bereziko norbanakoak erabiltzeko materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) hartzea, nahita pertsona horri jakinarazi gabe.
- Ikastolako irakasle edota langileen agindu zuzenak ez betetzea, kutsatzeko arrisku handia dagoen egoeratan.
- Ikastolara COVID-19ari lotutako sintomak dituela joatea, behar diren neurriak hartu gabe edo hartutako konpromisoak bete gabe.
- Ikastolako kide den pertsonak edo bere bizikidetzaren unitateko beste pertsona batek COVID-19a duela edo honi lotutako sintomak dituela ez jakinaraztea ikastolari
- COVID-19a duelako edo izan duelako haur bati edo beste pertsona bati jazarpenera edo bullying egitea, edo egoera horren inguruan gezur bat hedatzea, edo hiru arau-hauste larri metatzea.

Arau-hauste mota bakoitzerako ezarri beharreko zigorrak jada jasota daude Barne Araubidean. **Covid-19aren aurrean prebentzio eta jarduketaren protokoloarekiko jokabideak bizikidetzari kalte larria eragiten badiote, BEREHALAKO KANPORATZEA ezarriko da.**